

"Euzkadi" ikastola Caracas'en

Tierra Vasca, 133. zk., 1967-07: 5.

Caracas'en euskel ikastola bat eratzeko asmoa ez da oraingotzekoa.

Ia amar bat urte izango dira, geiago ez ba dira, don Luis Bilbao, sendagille bizkorra ta euskeldun jatorra, lan noetan asia zala. Egin zitzaizkein garai artan gurasoei galderak, eta zenbat ume bilduko gipuzken eta ikastola lanean jartzea zenbat kostako zanaren miaketak egin ziran garai artan. Bañan oraindik goizetxo izan, nunbait, eta bildu ziran ume-izenak ez zuten autobus bat lanean jartzeko aña ematen.

Gero, umeak ugaritzen joan diran bezela, ikastola eraizeko naiak ere azitzen joan dira.

Orain dala bi urte ta erdi, 1964'go azillan, osatu zan lanengo kinder ikastola 11 umerekin. Asierak ez dira errezak izaten, eta emengotxe au ez zan erreza izan noski. Bañan, beti gerta oi dan beela, lan zailletako ere izaten dira ondo gertatutako langilleak, eta oraingo bear aundi au betetzeko ba genduan Caracas'eko Eusko-Etxe'an andereño argi ta euskeltzale bero ta langille-langille bat: Arantxa Mujica. Irakaslearen alaba, irakasleen arreba ta aizpa, Arantxa beraere irakaslea da, ta lan au egiteko ezin ba da egokiago baten laguntzarin arkitu. Gero, Arantxa'k ere izan zuan beste bear-bearrezko laguntza, ta Basterretxea'tar Itziar andereñoarena, euskeltzale langillearena, ez zan makala izan.

Eusko-Etxe'ko ikastola onek izena ere bear zuan, eta or jarri zioten amets ederrez betetako izena: "Euzkadi".

Emendik gerokoak gain-bera bezela, errez eta egoki, etorri dira. Ez lanik palta izan ez dalako, ez; eta buruko miñak izan ba dira, Arantxa ta Itziar'ek pasa dituzte ixil-ixilik. Bañan nik esan nai detana da, alegia ikastola onen etorria ezin zitekeala ugariagoa ta aberatsagoa izan; lan au aparra bezela azi dala.

Ba al dakizute, 11 umekin asitako "Euzkadi" ikastolak, bi urte buru, 72 ume bildu dituala?

Ba!, 1966'go ilbeltzean emengo Ministerio de Educación dalakoan izena eman eta lengo kinder'eri Preparatorio malla ta gero lenengo malla erantzi zizkieten. Aunditze onetarako laguntza berria bear, ta or etorri zitzaien berez irakasle ta euskelizale zintzo dan Zubizarreta'tar Josebe aberkidearena. Gero, kate eder baten ustaiak bezela, bigarren, irugarren eta laugarren mallak etorri dira, ta lan onetarako beste bi irakasle langille etorri zitzaizkiote: Bilbao'tar Libe ta Gainzarain'dar Karmentxu.

Ara da, orain dala bi urte oraindik jaio ere ez zan ametsa gure arteko egi langille ta etorkizunez betetako bat biurtu.

Orain arte ikastola txiki bat izan dana, Venezuela'ko beste ikastola nagusien gorputza bete-bete artu du. Emendik aurrera, emengo legeak agintzen duten bezela, emen, Venezuela'n bertan, jaiota eta emen irakasle egindako irakaslearen zuzenbidepean egon bear du. Bañan orretarako are ba degu lau guxietarako diña diranak argitzen ditugun bezela, euskotar bat, emen jaiotako gure odoleko irakasle bat: Bilbao'tar Libe andereñoa.

Orretzaz gañera, Eusko-Etxean leku geiago billatzeko bidean gaude.

Orain arte, Eusko-Etxe'k berak zituan leku batzuek ondo aprotxatu izan dira; bañan umeak ugaritzen ari diran neurri berean leku geiago eskatzen asi dira. Ta orretzaz gañera, Ministerio'ko inspektoreak berak ere esan digute leku berriak gertatzen asi bearrean generala. Eusko-Etxea asi da gai onetan lan egiten, eta laixter izango al ditugu gure umetxoak bear dituzten lekuak.

Ara ba da, lenago nola asi ez genduen gutxia aunditzen eta ugaritzen joan dan, eta nola soluzio berriak eskatzen asi diran.

Eta dana andereño batek, garaia eldu zanean eta bearrak eragin zionean, lan au gogoz artu zualako Mujika'tar Arantxa andereñoak biotz-biotzean daukan umetxo euskaldunen bearrak ondo ulertu ta aurrera eraman ditualako.

Orain dala bi aste egin zioten Eusko-Etxea'n Arantxari omen polit bat, ondo asko merezi zuan jai bat. Orduan joaterik ez genduan izan; bañan emen bijoazkio merezi dituen gure txalo beroak, eta gure eskerrak.